

GAUEKO EZTABAIDAK

AGUSTIN ARRIETA URTIZBEREA



erein

GAUEKO EZTABAIDAK

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, kopia, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2022ko martxoan

Azaleko irudia:

Vincent van Gogh, «Kafe Terraza gauetz»

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Itxaropena

© Agustin Arrieta Urtizberea

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-654-2

L.G.: D 304-2022

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

GAUEKO EZTABAIDAK

Agustin Arrieta Urtizberea



*Inma eta Igorri.
Zenbat desadostasun, zenbat eztabaida!*

AURKIBIDEA

Aurkezpenak	11
LEHEN GAUA:	
Zientziaz, erlijioaz eta egiaz, besteak beste.....	15
BIGARREN GAUA:	
Arteaz, generoaz, maitasunaz eta balioez, besteak beste	63
HIRUGARREN GAUA:	
Zoriontasunaz, besteak beste.....	133
Agur esateko ordua.....	159
Argibideak, aipamen bibliografikoak eta esker emateak	161

AURKEZPENAK

*Ai, bai bitxia dela benetako mundua, Lenù,
oraintxe ikusi dugu, ez dago deus, deus, deus
ere, eztabaidarik gabe esan dezakegunik ha-
lako dela.*

Elena FERRANTE,
Ume galduaren historia

Egun batzuk pasatu dira kongresuan egon zirenetik. Egunerokotasunarekin apurtu zuten egun haietan, gustura ibili ziren, batez ere kongresutik kanpo, hain zuzen ere, kongresutik kanpoko elkarrizketetan eta eztabaidetan. Momenturik onenak ostatu hartu zuten hoteleko tabernan edo beste taberna batzuetan eman zituzten ohera joan baino lehen, egun osoan zehar hitzaldiak eta mahai inguruak jarraitu ostean, kongresuko parte hartzaileekin derrigorrezko hartu-emanak eta elkarrizketatxoak izan eta gero. Hori izan zen onena, kongresuaren aitzakian kongresutik kanpo igarotako unek.

Lau lagun, kongresutik at, tabernaren batean, edariak mahai gainean, honetaz eta hartaz mintzatzen ari zirela, gutxitan gertatzen dena gertatu zen: bestelakoak izan arren, eztabaidaren suak elkartu zituen gero eta gehiago. Agian beren arteko harremanak iraungitze data zuelako, agian gau eta egun gutxi haiek muga mugiezina zutelako, agian bestelako arrazoi batzuentatik, eztabaida, alderapen

indar baino, erakarpen indar bilakatu zen. Tentsioa izan zen eztabaida eta elkarrizketa haietan, baina haserrealdirik ez. Zertarako? Haserretzeak ez zuen etorkizunik, gau haiek pasatutakoan denak egunerokotasunera itzultze-koak zirelako, eta egunerokotasunean elkarren berririk ez zuten izango, ez aurrez aurreko berri zuzenik behintzat. Edo hori pentsatzen zuten hasieran.

Kongresuko kontuak ahalik eta ongien igaro, eta gaueko elkarrizketa noiz iritsiko zain zeuden guztiak. Auskalo zergatik, baina lehenengo hartu-eman ezin laburragoan garbi ikusi zuten hurrengo gauetan laurak elkartuko zirela. Hura izango zen atzera egiterik onartzen ez zuen hitzordua. Eta hala gertatu zen.

Gau haiek oihartzuna utzi dute haien baitan, barrenean azkura eragiten diete etenik gabe. Gaitik gaira ibili ziren, auziak ulertu nahian, aurrera pausoak eman nahian, argitasuna eskuratu nahian. Egun haietan zer edo zer irabazi zutelako irudipena dute, baina nola adierazi etekina? Etekin hori ez da neur daitekeen ezer, ez dago zenbatzerik, ez dago beste gauza batzuekin konparatzerik, ez zuzenean behintzat.

Galdera asko. Galdera asko egin dizkiote beren buruari elkarrizketa haien harira. Zein ona den galderak egitea! Halere, jende askok esango luke: Ona? Zertarako? Galderak dira moda ororen aurkako terapiarik onena, moda nagusien, txikien, menperatzaileen eta alternatiboen aurkakoa. Eta moda edo ohitura asko dago, moda mota asko dago, eskuinean eta ezkerrean, goian eta behean, aurrean eta atzean. Galderak agortzen direnean, moda edo ohitura batean murgilduta gauden seinale, agian oharkabean murgilduta. Batzuek esaten dute *galdetzea eta galdetzea* traba jartzeko modu bat besterik ez dela, otzantasunerako bide bat, ekimenak balaztatzeko bide bat, aurrera ez giteko bide

bat: paralisia, azken buruan. Baina lau lagun haientzat pizgarria izan da, bide berriak zabaldu zaizkie, eta beste batzuk, ziurtzat jotzen zituztenak, susmopean dauzkate orain. Horrek guztiak bizitzaren motorrari indarra ematen dio. Hori guztia aurrera egiteko modu bat da. Izan ere, oharkabeko edo pentsatu gabeko ohitura bat etsai ikusezina bihur daiteke. Eztabaidak, galderak eta zalantzak zein onak diren! Kontuz ibili eztabaidak, galderak eta zalantzak oztopatzen dituen jendearekin.

Bizitzako momentu batzuk ustekabean bihotzean iltzaturik geratzen dira, eta hori gertatu da kongresuaren aitzakian izandako elkarrizketa eta eztabaida haiekin, gaueko eztabaida haiekin.

Ane, Josu, Miren eta Unai kongresuaren irekiera ekitaldiaren bezperan iritsi ziren herri eder hartako hotel txiki txukunera. Bertako jatetxean sakabanaturik afaldu ondoren, hoteleko tabernan, barran bermaturik, lau lagun haien arteko lehenengo elkarrizketa kasualitatez (edo gertakari txiki zehatzezinen kate baten harira) piztu zen. Kongresua izan zen gai nagusia, gaiak eta hizlariak batez ere, eta ohiko aurkezpenak eta norberaren azaleko interesen deskribapenak egin eta gero, hurrengo egunerako hitzordua jarri zuten hotelean bertan, afalostean. Izan ere, kongresuaren testuinguruan lanpetuta ibiliko ziren, bakoitza bere esparruan, eta kongresuan bertan nekez izango zuten elkarrekin lasai mintzatzeko aukerarik.

Hurrengo orrietan jaso dira gau haietako hitzak edo elkarrizketak: gaueko eztabaidak!

LEHEN GAUA

Zientziaz, erlijioaz eta egiaz,
besteak beste

Gauzak azaltzeko gaitasuna da gizakiok daukagun talentu ederrenetako bat. Ez gara bereziki azkarak, ez gara bereziki indartsuak, baina benetan nahi baldin badugu, gogor lan egiteko eta hausnartzeko prest baldin bagaude, egonari nahikoa baldin badugu, baita jarraitzeko gogoia ere, errakuntzak onartzeko eta behin eta berriro ekiteko prest baldin bagaude, munduko zatiren bat nolako den azal dezakegu agian. Dena dela, lan gogorra da, eta askotan mingarria eta frustragarria. Gainera, badago gizakiaren hain miresgarria ez den beste alderdi bat: gauzak azaltzeko eta deskubritzeko daukagun zailtasunak onartu nahi ez dituen alderdia, gauzak nahi bezalakoak izatea nahiago duen alderdia edo misteriotsua eta ikaragarri ulergaitza den hori maite duen alderdia.

Susan HAACK,
Ciencia, sociedad y cultura